

Emakumeen boteretzea: saiakerak eta zailtasunak

Maidier Zilbeti Perez
Antropologian lizentziatua

Eva Martinez Hernandez
EHUko irakaslea

1995. urtean Beijing-en egindako Emakumearen Mundu Konferen-
tziaren ondotik, gobernuetatik berdintasuna lortzeko ahaleginetan, boteretzea
edo *empowerment* aurkeztu zen estrategia nagusi moduan. Kontzeptuak
orokortzearen joera hartu du, eta modu eta testuinguru anitzetan erabiltzen da.
Honako idatzi honetan, lehenik, maila teorikoari dagokionez, emakumeen bo-
teretzearen kontzeptuak bere gain barneratzen dituen esanahietara hurbil-
keta ordenatua egin nahi da. Bigarrenik, euskal instituzio garrantzitsuenek
martxan jarritako ekimen konkretuetarako terminoaren erabileraren analisisira
gerturatuko gara; horretarako, Emakunderen Berdintasun IV. Planera hurbildu-
ko gara.

The Fourth World Conference on Woman that took place in Beijing in 1995
recommended women's empowerment as a main strategy to be used by governments to
achieve equality between women and men . The use of empowerment has been therefore
generalised all over the world and it is used in different ways and in different contexts.
In this essay, first, we are approaching the concept of empowerment in a theoretical level,
going into the different meanings and explanations of the concept. Secondly, we are
analyzing this concept in the context of the initiatives proposed by main Basque institutions.
For this last aim, we will approach the IV Programme on Equality of the Basque Institute for
Women's issues.

1. Emakumeen boteretzea: kontzeptuaren garapena eta dimentsioak¹

1.1. Boteretzea, jabetzea, ahalduntzea

Boteretzea, jabetzea eta ahalduntzea modu ezberdinetan ulertzen ditugun kontzeptuak dira. Ikertzaile, instituzio eta proiektu ezberdinak dira kontzeptu hauen artean aukera egiten dutenak, eta aukera ez da garrantzirik gabekoa; izan ere, aukeraketa bakoitzak erlazio zuzena du aurrera eramane nahi diren ekintza eta helburuekin.

Artikulu honetan, *boteretzea* erabiltzearen alde egingo dugu. Erabilera honen alde egitearekin batera, beste bi kontzeptuen eta *boteretzearen* arteko ñabardurak ekarriko ditugu.

Ahalduntzea banakoaren mailan aurrera eramane den trebakuntza izango litzateke. Baina bestetik, ez dakar, halaberharrez, maila kolektiboan edo komunitate mailan aritzeko tresnarik edo trebakuntzarik.

Jabekuntzak banakoaren mailan aurrera eramane den kontzientziazioarekin bat egiten du. Ez dira komunitateak jabetzen, baizik eta banaka aurrera eramane den barne-erlaldaketa da jabekuntza. Bestetik, ez da argi geratzen banakoarengan aurrera eramane den erlaldaketa honek ekintza kolektiborako espaziorik uzten duen ala ez.

Boteretzeari dagokionez, banakoaren mailan eta maila kolektiboan aurrera eramane den barne-erlaldaketarako eta kanpo-aldaketarako proiektzioa dauka. Emakumeen boteretzeak adierazten du emakumeek jendarte honetan bizi duten menderakuntza-egoeratik ateratzeko asmoa eta potentziala. Hiru kontzeptuetatik zabalena izanik, botere-egiturak eraldatzeko ideia argien adierazten duena da.

1.2. Kontzeptuaren garapena

Boteretzearen inguruko lehendabiziko adierak ingelesez agertzen dira XVII. mendeko testuetan. Bertan, *empowerment* ahalmen eta sustatzearen sinonimo gisa ageri da (León, 2001). Berrikiago, 60ko hamarkadan, Amerikako Estatu Batuetan aurrera eramandako mugimendu sozial garrantzitsu baten hausnarketa eta ekintzaren oinarria izan zen. *Black Power* edo *Black Empowerment* mugimenduaren inguruan egin ziren aldarrikapen eta analisi teorikoak, aitzindariak izateaz gain, ezinbestekoak dira boterearen inguruko edozein hausnarketa kritikoki abiatu nahi dugunean eta jendartearen egituretan erlaldaketa bilatzen dugunean.

Bestetik, emakumei dagokienez, bere lehenengo erabilerak Emakume eta Genero Garapena Ikerketekin erlazio zuzena dauka. Bere jatorria, zehazki, Sen eta Grown-ek 1985ean Nairoibiko Emakumearen Hirugarren Mundu Konferentziarako prestatutako testuan kokatzen da. Idatzia, 1987. urtean argitaratu zen, eta gaztelaniara *Desarrollo, crisis y enfoques alternativos: Prespectivas de la mujer en el tercer mundo* itzulia izan zen. Honako testuinguru honetan, kontzeptua,

1. Artikulu honen beste bertsio bat, laburragoa, Bilbon, 2007. urteko otsailean aurkeztua izan zen Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren VIII. Kongresuan.

Hegoaldeko Emakumeen Mugimenduak² bultzatutako estrategia moduan agertzen da.

Kontzeptua, Beijing-en 1995. urtean egindako Emakumearen IV. Mundu Konferentzian jaso zen. Konferentzia hartan, lehendabiziko aldiz, emakumeen sustapenaren ideia eta jendartearen eraikuntzan, baldintzapenik gabe eta beraien gaitasunen inguruan dudarik egin gabe, emakumearen ezinbesteko parte-hartzearen ideiak indartu ziren. Harrezkero, boteretzea edo *empowerment*, *mainstreaming* edo zehar-lerroarekin batera, gobernuari berdintasuna lortzeko lanerako gomendatzen zaizkien oinarritzko bi estrategia dira.

Autoreen artean, terminoa, Beijing-eko konferentziaren ondoren orokortzen baldin bada ere, mugimendu feminista, pixkanaka, 60ko hamarkadan hasi zen erabiltzen. Maxine Molyneux, Carolyn Moser eta Kate Young-ek³, besteak beste, interes eta behar praktikoen eta estrategikoen artean desberdintasuna eginez heldu zioten boteretzearen ikuspegiari. Horrela, emakumeek dituzten behar praktikoen eta estrategikoen jendartearen duten estatusarekin erlazio zuzena dutela adierazten da (Rowlands, 1997: 213). Behar praktikokoak⁴ berehalakoak eta urgenteak izaten dira eta gabezi material eta oinarritzkoena diren beharrei erreferentzia egiten diete, gehienetan, bizi-iraupenarekin lotuta daude. Behar estrategikokoak⁵, berriz, denbora luzerako erantzunak dira, eta emakumeen eta gizonen arteko botere-erlazioetan funtsezko aldaketak ahalbidetzen dituztenak dira (León, 2001: 98). Behar praktikokoak emakume batzuek pairatzen dituzte; estrategikokoak, berriz, emakume guztiek. Praktikoaren eta estrategikoaren arteko ezberdintasuna ez da beti nabarmena⁶; izan ere, sarri emakumeen baldintza estrategikoetan lagun dezakegu, behar praktikokoak ase ondoren. Hortaz, «estrategikoan esku-hartzeak praktikoa kontuan hartu behar du» (León, 2001: 99). Eztabaida honen testuinguruan, berau praktikan jartzeko bitarteko eta lanabesen inguruko hausnarketaren ondotik, boteretzearen ideiak indarra hartzen du.

1.3. Banakako boteretzea eta boteretze kolektiboa

Ikuspuntu analitikotik, gutxienik boteretzearen bi dimentsio⁷ ezberdinak dira: banakako boteretzea eta boteretze kolektiboa.

2. Boteretzeak Hegoaldean garatutako diskurtso eta estrategietan jatorria duelako ideia eztabaidatua izan da berriki. Hainbat autorek defendatzen dute kontzeptuak, Hegoaldean garatutako politikekin baino, Mendebaldeko individualismoarekin erlazio zuzenagoa duela. Are gehiago, «kontzeptuaren genealogia ezberdinen» inguruan ere hitz egiten da (Oxaal eta Baden, 1997: 4)

3. León-ek, 2001: 98an aipatua.

4. Behar praktikokoekin emakumeen behar materialei erreferentzia egiten zaie. Beraien bizi-iraupenerako egiten dituzten eskari konkretuei: berokia, elikadura, ura... Horietako batzuk, gainera, estrategikokoak dira: soldata bat lortzearen lan egitea, enplegua, etxebizitza, ikasketa-bekak... (León, 2001: 98).

5. Behar estrategikoen «gizonek eta emakumeek modu ezberdinean parte hartu duten jendartearen egiturak kolokan jartzen dituzte» (León, 2001: 98) eta emakumezkoak jendartearen leku egokiagoan kokatzen dituzte. Kasu horretan, parte-hartze herritarra, demokrazia-baldintzetan erabakitzeak aukera, autonomia eta solidaritatea, formazio eta trebakuntza eta antzeko egoerak barne hartzen ditu.

6. Behar praktikokoak izendatzen errazak diren bitartean, behar estrategikokoak, askotan, izendatzen zailak dira, eta ondorioz, horiek lan egiterakoan zailtasunak ugariak dira.

7. Rowlands-ek (2005) konkretuki, hiru dimentsioz hitz egiten du: pertsonala, hurbileko erlazioak eta kolektiboa.

Banakako boteretzea edo boteretze pertsonala honela defini daiteke: emakume bakoitza indartu eta bere burua defendatzeko aukera emateko eta opresioari aurre egin eta menderatzeari lotuta egoteari uzteko tresnak garatzen dituen prozesu pertsonala (Lagarde, 2000: 90). Banakako domeinu eta kontrolaren zentzua hartzen du, «bere kabuz gauzak egitea» (León, 2001: 96), are gehiago, «barneratutako opresioaren ondorioak desegiteko ahalmena» (Rowlands, 2005) eta konfiantza garatzea eskatzen du. Sarriegi, emakumeen boteretzea bilatzen duten ekimenak, erakunde desberdinek bultzatuta, termino indibidualetan⁸ gauzatzen dira, autokonfiantza pertsonala emakumeek mendean dituzten botere-egiturak kolokan jartzeko kooperazioaren aurretik nabarmenduz (Oxaal eta Baden, 1997: 5).

Bestetik, boteretze kolektiboa gertatzen da pertsonak banaka lor dezaketen eraginkortasuna baino handiagoa lortzeko kolektiboki lan egiten dutenean (Rowlands, 2005). Konfiantzarekin eta aliantzan, ordena zaharrari aurre egiteko eta egunerokotasuna eraikitzeko bizikidetzak sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalaren moduak aurrera eramateko gaitasun kolektiboaren ideari erreferentzia egiten dio (Lagarde, 2000: 190).

Banakako boteretzerak mugatzen diren ikuspuntuak kritika ugari jaso dituzte. Horrek taldearen eta banakoaren egunerokotasunaren praktika eta botere-egituren eta praktiken arteko erlaziorik ez du ezagutzen, gainera, pertsonak, zabala den testuinguru soziopolitiko eta historikotik deskonektatzen ditu, boteretzeak aurkezten duen elkartasunaz, eta bestearengandik arduratzearen esanahitik urrunduz (León, 2001: 96). Zenbait autoreren ustez, boteretzea banakakoa bakarrik izan daitekeen bitartean «jendarteak bermea ematen baldin badio, jendartean zabaltzen baldin bada» (Lagarde, 2000: 190), beste autore batzuek uste dute boteretze kolektiboa lortzeko pausoa edo beharrezko elementua dela, nahiz eta boteretzearen esparru horretara mugatzea nahikoa ez dela adierazten duten (Rowlands, 2005). Oro har, boteretzeak «ilusioa izan daitekeen testuinguruarekin bat egiten ez baldin badu eta prozesu politiko baten ekintza kolektiboekin erlazonaturik ez baldin badago (...) Ezin daiteke boteretzea bere ekintzetara murriztu eta testuinguru historikoa eta politikoa ahaztu. Boteretzeak, aldaketa eta ekintza kolektiboa, biak barne hartzen ditu» (León, 2001: 97).

1.4. Boteretzearen jokalekuak

Boteretzea, jokaleku ezberdinetan adierazten da. Stromquist-i (1997) jarraituz, boteretzearen definizio osatu batek, gutxienik, hurrengo lau elementuak barneratu beharko lituzke: kognitiboa, politikoa, ekonomikoa eta psikologikoa. *Dimentsio kognitiboak* diosku mikro eta makro mailan emakumeek ezagutza izan behar dutela beren mendekotasunaren baldintza eta kausen inguruan. *Dimentsio politikoak* aldaketa sozialerako azterketa eta antolatzeko ahalmena dakar. *Dimentsio ekonomikoak* maila bateko finantza-autonomia eta ekoizpen-produktuen inguruko kontrola dakar. Azkenik, *dimentsio psikologikoak*, banakako errealtatea eta jendartea bera aldatzeko ekitea dakar banaka zein maila sozialean.

8. Zenbait autoreren ustez (Oxaal eta Baden, 1997) honako banakako kontzepzio hau demokrazia liberalaren ulermenarekin erlazonaturik dago. Horrek, erabakiak hartzen diren esparru ezberdinetan banakoen eskubideak nabarmentzen ditu.

2. Emakumeen boteretzearen ezaugarriak

2.1. Zailtasunak boteretzearen definizioarekin

Boteretzearen kontzeptua konplexua da. Hainbeste definizioen eta elkarren artean oso ezberdinak diren definizioen helmuga izanik, askotan, berau bultzatzeko politika bideragarriak garatzea zaila izaten da. Boteretzea, diziplina ezberdinetatik (psikologia, gizarte-lana, hezkuntza...), alor praktikoan eta teorikoan garatu da eta azken urteetan, emakumeekin duen erlazioak garrantzi berezia hartu du. Magdalena León-ek (2001: 95) adierazten duen bezala, «bere perspektibaren zorrotasuna proiektatu den neurrian, bere esanahiak indarra galtzen du». Oro har, boteretzeak, gehienbat, hurrengoia barne hartzen du: «Emakumeen beharrak erantzunak izan daitezela. Horretarako zehaztasunez definitu behar dira. Horrela bakarrik da boteretzea analisi eta plangintzarako tresna» (Rowlands, 2005).

Boteretzearen inguruan aurrera eramandako ikerketek baieztatu dute formula magikorik ez dagoela, ezta akatsik gabeko eredu eta diseinurik ere (León, 2001: 100-103). Zentzu horretan, hurrengoia ere baieztatu da: «Boteretzerako esperientziak ezin dira, batetik, botere-gabezia sortu zuen testuinguru historikotik atera, eta bestetik, ezin dira egungo prozesuetatik at ikusi» (Young, 1997: 104). Boteretzeak, halaber, interpretazio ezberdinak izan behar ditu testuinguru sozial, nazional eta kultural ezberdinetan; izan ere, «botere moduak historikoak dira, eta kulturalki baldintzatuta daude» (León, 2001: 97).

2.2. Emakumeen boteretzea eta boterea

Boteretze terminoaren ezaugarri nabarmena da botere hitza barneratzen duela (Batliwala, 1997: 191). Kontzeptu honen erabilera inguratzen duten kontraesan eta paradoxek, askotan, botere gehiagoren lopen gisa ulerrarazten digute. Aitzitik, kontzeptua, nagusiki, botere gabeko pertsonekin erlazionatu egin da, hortaz, desiragarria den aldaketatzat hartzen da. Boteretzeak barreiatzen duen ideia da botere-erlazioek dominazioa ekar dezaketenez, existitzen diren botere-iturrietara erronka eta erresistentzia ere ekar dezaketela edota beren gaineko kontrola.

Norabide horretan, ikerketak oso zehatzak izan dira, eta terminoaren ikuspegi ezberdinei eta emakumeen bizitzarekin duen erlazioari erreferentzia egin diete. Oro har, gehienetan, boteretze-estrategien ulermena eta praktika baldintzatzen dituen boterea ulertzeko bi modu aipatu dira: hierarkia eta mugak dakartzan *botere dominatzailea* eta gauzak egiteko gaitasuna dakarren *botere sortzailea eta emankorra*. Bestalde, analisi batzuk harago joan dira botere kontzeptuaren inguruan eta beren ondorioetan azterketa zehatzagoak barneratu dituzte. Zentzu horretan aipatzekoa da Rowlands-ek (2005) jaso dituen boterea ulertzeko lau moduak: «norbaiten edo zerbaiten gaineko boterea» (*power over*), «zerbaitetarako boterea» (*power to*), «norbaitekin edo zerbaitekin partekatzeko boterea» (*power with*) eta «boterea barrutik» (*power within*).

Norbaiten edo zerbaiten gaineko boterea (Power over). Boterearen adiera honek dominazio- eta subordinazio-erlazioa dakar berarekin. Ikuspuntu feministatik, norbaiten edo zerbaiten gaineko botereak (*power over*) barneratutako opresioa eta opresio-dinamiken ulermena dakar. Erabaki formal eta ez-formalak hartzeko

gaitasunean du eragina; pertsonak eta taldeek beren ingurunean eragiteko duten ekintza-ahalmen eta eraginean beren burua nola ikusten duten ere eragiten du. Boteretzeak, beraz, ezezkorrak diren eraikuntza sozialak desegiteko gaitasuna barneratu behar du, eta boteretzearen prozesuan dauden pertsonak ahalmentu-nak ikusi behar dute beren burua, ekintzarako eskubidearekin.

Zerbaitetarako boterea (Power to). Botereak, zentzu honetan, erabakiak hartzeko autoritatearekin du erlazioa: gauzak egiteko boterea eta arazoak ebazteko boterea. Honako hau botere sortzailea da, boterea partekatzea ahalmentzen duena. Zerbaitetarako boterea, norbaiten edo zerbaiten gaineko boterea zalantzan jarri eta horri aurre egin ondoren lortzen da.

Norbaitekin edo zerbaitekin partekatzeko boterea (Power with). Honako botere honek helburu baten inguruan antolatzen bultzatzen ditu pertsonak, kolektiboak diren helburuak lortzeko. Boterearen dimentsio kolektiboa dakar berarekin.

Boterea barrutik (Power within). Botere modu honek norberak bere buruaz duen segurtasunari eta konfiantzari egiten die erreferentzia. Pertsonak ezagutu behar dute nola eragiten duen botereak beren bizitzan, berau aldatzeko eta beregan eragiteko konfiantza garatuz.

Boterea barrutik ikuspuntuak dimentsio indibiduala du eta *zerbaitetarako boterea* eta *norbaitekin edo zerbaitekin partekatzeko boterea* ikuspuntuek dimentsio kolektiboagoi erantzuten diete, Oxaal eta Baden-ekin ados (1997), mugimendu feministan antolaketa kolektiboa (*power with*) nabarmenduko litzateke, zeinak *boterea barrutik (power within)* garatzen duten estrategiak martxan jartzeko ideien garapenean eragin handia izan duen.

Boteretze kontzeptuaren eta boterearen arteko erlazioa sakontasun handiagoz aztertu da terminoaren adiera ezberdinek politika ezberdinen praktikak mugatu dituztela aintzat hartuta. Zentzu horretan, Oxaal eta Baden-ek (1997) egiten duten azterketa nabarmentzekoa da. Ikuspuntu ezberdinen garrantzia nabarmentzen dute; izan ere, kultura-antolaketak, prozesuak eta ardura-egiturak aldatzen dira, eta horiek aukeratzen diren estrategietan eragina dute (Oxal eta Baden, 1997: 8)⁹.

2.3. Erakundeak eta emakumeen boteretze-prozesuak

Beijing-etik aurrera, eta batez ere azken urteetan, emakumezkoen populazioari dagokionez boteretzearen kontzeptuak orokortzen egin du haien ekintza-proposamenetan Mendebaldeko instituzioen artean. Instituzioetatik, inplizituki edo esplizituki, emakumeen boteretzea deitu dutena helburu dutela esku hartzeko programak aurkezten dira. Testuinguru horretan, abian jartzen diren programak formulaziorik eta planteamenduz ezberdinak dira, eta askotan, ongi definitu gabeko eta mugatua den boteretzearen interpretazio batetik abiatzen dira.

9. Autore hauek, beren ikerketan, bi hurbilpen nabarmentzen dituzte: 1) *Boteretzea helburu (Women's Empowerment Framework)*, *mainstreaming* estrategiek inplizituki zuzenean erlazioatua, eta boteretzearen arabera programa guztien azterketa dakarrena, eta 2) *boteretzea erabakiak hartzearen bitartez* erabakiak hartzen diren eremuetan emakumeak barneratzeko, horien ahalmenen promozioan eta hezkuntzan datza.

Honako esku-hartze hauek ez datoz bat boteretzea beti jarraitua eta dinamikoa delako eta goitik behera bultzatua izan beharrean «beti behetik gorako prozesuan delako» (Rowlands, 2005; Oxaal eta Baden, 1997) ideia orokortuarekin. Gainera boteretzea modu zabalean ulertzeak honako hau suposatzen du: «Instituzioek ezin dute emakumeen boteretzea nahi izan ezta aldarrikatu ere; izan ere, emakumeek bere boteretze behar dute beren burua» (Oxaal eta Baden, 1997). Ikuspuntu feministatik boteretzea banakoari gertatzen zaion zerbait da, Marcela Lagarde-ren hitzetan: «*Una se empodera, no la empoderan. Nadie empodera a nadie*» (Lagarde, 2000). Horrela, zenbait autorek salatu duten moduan, «estatuaren plangintza-agentziek emakumezkoen beharrak defini ditzaketelako ideia bera boteretzearen ideiarekin aurka doa» (Oxaal eta Baden, 1997: 6)

2.4. Boteretzearen betekizunak

Eginiko ikerketetan boteretze-prozesuek dituzten betebeharez hitz egin da. Horrela, erakundeen, pertsonen edo mugimenduen boteretzearen betekizunak definitzen saiatu dira. Oro har, alde batetik lidergorako trebetasuna, formakuntza eta zenbait baliabideren beharra nabarmendu dira, eta beste alde batetik, elkarrizketa demokratikoko prozesuak eta politikan parte hartzeko eta gatazkak ebazteko teknikak (Sen eta Grow, 1985: 32)¹⁰.

Zentzu horretan, Kabber-ek (2001: 20) emakumeen boteretzerako, elkarren artean erlazionaturik dauden hiru dimentsio edo betebehaz garatzen ditu: *baliabideak* (edo baldintzak)¹¹, *agentziak* (edo prozesuak)¹² eta *emaitzak* (edo lorpenak). Kaaber-en arabera, boteretzeak aldaketa-prozesua dakar. Pertsona batzuek beren bizitzetan aukera estrategikorik egin ezin zuten testuinguruetan baldintza gehiagoren lorpenari egiten dio erreferentzia. Prozesu honetan, aipaturiko hiru elementuak garrantzitsuak dira eta arrakasta maila eta aurrera eramaten diren baldintzak definitzen dituzte. Kaaber-ek proposatutako elementuak, halaber, Mendebaldeko instituzioek bultzatutako prozesuei ez dagozkien arren, berak proposaturiko betebeharen hirukotea testuinguru horretan ere erabilia izan da. Zentzu horretan, *emaitza* baliagarrietara eramango gaituzten boteretzea martxan jartzeko *baliabide* eta *agentzia* edo egitura zehatzen beharra nabarmendu da.

3. Boteretzearen definizioaren ibilbidea

Adierazi den moduan, emakumeen boteretzearen ideiarekin inguruan ez dago definizio bakarra ezta adostasunik ere. Horrek, askotan, erabilgarritasunean eta praktikan zailtasunak ekartzen ditu. Literaturak dakarzkigun definizioek ideiarekin osagai konkretu batzuk nabarmentzeko joera daukate. Hurrengo lerrotan, bere deskribapenaren eta esanahiaren irismena kontuan hartuz, boteretze kontzeptuaren definizioen sailkapen-entsegua ekarriko da.

10. Oxaal eta Baden-ek, 1997: 5ean aipatua.

11. Giza baliabide, baliabide material eta sozialetarako sarrerarekin eta horien inguruko etorkizuneko aldarrikapenekin du harremana. Boteretzerako beharrezkoak diren baliabide eta baldintzei dagokie.

12. Autorearen arabera, agentziaren kontzeptuak, boterearekin erlazionaturik, ñabardura positiboak eta ñabardura ezkorrek ditu. Horretan sakontzeko: Kaaber, 2001.

Definizio multzo handi batek boteretze orokorra aurkezten du, lortu nahi dituen *helburuak* eta planteamenduaren *onurak* nabarmenduz. Hala ere, ez dute prozesua deskribatzeko elementurik eskaintzen.

Boteretzea, genero-desberdintasunaren gainditze-prozesua balitz bezala ulertzen da (León, 2001: 104).

...boterearen banaketa aldatzeko prozesua, pertsonen arteko erlazio eta jendarteko instituzioetan (Stromsquist, 1997: 78).

Ohikoagoak diren definizioak zuzenagoak eta deskribatzaileak izaten dira, nahiz eta boteretzeri banakako ikuspuntu batetik hurbiltzen diren, emakumeek baliabide eta tresna aproposak zein prozeduraren bitartez lortzen dituzten nabarmentzen dute.

Boteretzeak pertsonak beren bizitzaren kontrola beren esku izan dezaten esan nahi du, gauzak egiteko eta agendak definitzeko abilezia (León, 2001: 96).

Erabakiak hartzeko abilezia eta aukerak ezeztatu zaizkien pertsonak beren bizitzako alor estretagikoetan abilezia hori lortzeko prozesua (Kaaber, 2001: 19).

Beste definizio multzo batek *erabakiak hartzeko aukera* nabarmentzen du, zehazki, egitura politikoetan barneratu eta eremu politikoan zein ekonomikoan erabakiak hartzeko prozesu formalizatueta parte hartzeko aukera nabarmenduz. Sarri, definizio hauek boterearen espazioetan banaka sartzeari egiten diote soilik erreferentzia. Horrela, zenbait ikerketa enpirikok agerian utzi dute, askotan, emakumeen boteretzearen ulermen, kargu publiko eta ordezkariak emakumeek betetzera mugatzen direla (Aldana Saraccini, 2002).

Boteretzea erabakiak hartzeko prozesutik kanpo dauden pertsonak prozesuan barneratzean datza (Rowlands, 2005).

Bestetik, definizioen laugarren talde batek, bi ideia horiek barneratzen eta zabaltzen ditu, eta *erabakiak hartzeko guneetan* emakumeen presentzia handitzera bideratuta dauden emakumeen *banakako boteretze*-prozesuak nabarmentzen ditu. Zentzu horretan, banakako boteretzea, boteretze kolektibo bilaka daiteke, eta helburu komun baterako *antolaketa eta mugimendua* agerian uzten ditu.

Boteretzea erabakiak hartzeko atea irekitzea baino zerbait gehiago da, pertsonak beren burua ahalmenarekin eta erabakiak hartzeko espazio hori betetzeko eskubideekin ikusteko prozesuak barne hartu behar ditu ere (Rowlands, 2005).

Banakako autoafirmaziotik aldarrikapen kolektibora, protestara eta botere-erlazioei aurre egiteko mobilizaziora doan ekintza sorta (Sharma, 1991-2)¹³.

Emakumeek beren herritar-rola hartu eta antolatzeko gai izatea ahalbidetzen duen prozesua (Saraccini, 2002:14).

Definizio batzuek soilik ulertzen dute boteretzea modu zabalagoan, ez bakarrik presentzia, aldaketarako antolaketa edo erabakiak hartzen diren foroetan egoten

13. Batliwala-ek, 1997: 193an aipatua.

laguntzen duen trebatze gisa, baizik eta emakumeen beharrak eta interesak erabakiak hartzen diren espazioetan egongo direlako berme gisa.

Emakumeen beharrak ase daitezen bermatzen duen potentziala (Rowlands)¹⁴.

Ez dago eztabaidatzerik emakumeen boteretzeari, bere edozein adieratan, zuzendutako estrategiak aurrera eramatearen garrantzia. Dena den, jasotako definizio gehienak prozesu baten maila ezberdinei erreferentzia egitera mugatzen dira. Gure ikuspuntutik, benetako eta eraginkorra den botoretzea soilik gertatuko da baldin eta presentzia eta mobilizazio kolektiboak emakumeen behar eta interesen onarpena badakar eta horiek kontuan hartuta kudeatzen badira programak .

1. laburpen-koadroa Boteretzearen definizioak
Estrategiaren helburu eta onuretan ñabardura
–
Banakako ikuspuntuan ñabardura
–
Erabakiak hartzeko aukeran ñabardura
–
Erabakiak hartzeko guneetan barneratzean ñabardura edota antolaketa eta mugimenduan (parte hartzeko banakako boteretzea)
–
Emakumeen interesen eta beharren presentzian ñabardura

Iturria: Norberak egina.

4. Emakumeen boteretzea euskal instituzioetatik

Atal honetan, labur, Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatutako ekimenak kontuan hartuta, eta konkretuki, IV. Berdintasun Planaren¹⁵ azterketatik abiatuta, emakumeen boteretzeari dagokionez, erkidegoko esku-hartzeak aztertuko dira. Dokumentu honen azterketak ez du instituzio bakoitzak aurrera eramandako politiken ikerketa sakonik ordezkatu nahi¹⁶, baina beste

14. León-ek , 2001: 106an aipatua.

15. Zentzu horretan analisia plano hipotetikoan gertatzen da, planean proposaturiko neurriek politika eraginkorrak izatea ez baitute bermatzen.

16. Emakumeen boteretzea sustatzeko euskal instituzioek gauzatutako ekimenak identifikatzea zaila izaten da. Izan ere, boteretzearen definizio eta ikuspuntu ezberdinei erantzuten diete, eta sarritan, ez dute boteretzearen kontzeptua erabiltzen. Zentzu horretan, Bizkaian, 2004. urteaz geroztik martxan dagoen Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren esperientzia ekarriko dugu. Ekimena, Basauri, Ermua, Getxo eta Ondarroako udalen berdintasunerako sailek koordinatzen dute. 2007ko martxoan horren antzeko ekimena aurkeztu zuten Gipuzkoako zenbait udalek, konkretuki, Arrasate, Eibar, Hernani eta Irunek.

mailetan aurrera eramaten diren politiken dokumentu orientatzailea izatearen dohaina daukanez, aztergaia interesgarri bihurtzen da .

4.1. Emakumeen boteretzea IV. Berdintasun Planean

IV. Planak aurreko berdintasunaren planen garapenean du bere jatorria, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005ko Legearen onarpenak ekarri zuen aplikazio-eremu berrian. Testuinguruan izandako berrikuntza honekin, aurrekoekin alderatuta, egitura eta artikulatu ezberdina aurkezten du plan honek. Horrela, esku-hartzearen alorretan egitura mantentzen bada ere, lau ardatz estrategikoren bitartez sailkatzen da¹⁷. Ardatz horietako bat, ahalduntzea (*boteretzea*) da¹⁸, *mainstreaming*-a, emakumeen aurkako bortizkeria eta arduren banaketa eta kontziliazioarekin batera.

Planak berak jasotzen duen bezala, «berdintasun-politikei dagokienez, datozen urteotan landuko diren lehentasunezko gaiak definitzen dira ardatz estrategikoen bitartez» (Emakunde, 2006: 23). Horiek aukeratzeko arrazoi eta irizpideen bila baldin bagabiltza, 4/2005 Legean daukaten presentziari erreparatu behar diogu, haien instituzio arteko izaerari, eraldagarritasun potentzialari eta behar sozialari.

Zentzu horretan, planak, boteretzearen ideari dagokionez, esplizitu egiten ditu izendatutako legearen erreferentzia batzuk¹⁹. Planaren arabera, boteretzea, legearen helburuetan dago, horrek bere objektua definitzen duenean: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu eta bermatu, eta bereziki, emakumeen autonomia eta posizioa indartu, eta printzipio orokorretan, gizonen eta emakumeen eskubideak bermatuko dituzten neurrien beharra ziurtatzen duenean «boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne» (Emakunde, 2006: 42).

Ardatz estrategiko honen azalpenean, Emakundek boteretze kontzeptuaren esanahi zabala jasotzen du, alde batetik, berriz orekatu beharreko botereen behar-raren inguruan ari da, eta emakumeek lortu beharreko lau autonomia mota izendatzen ditu: fisikoa, politikoa, soziokulturala eta ekonomikoa. Gainera, kontzeptuaren dimentsio ezberdinak gogorarazten dizkigu: banakoa-kolektiboa, lokala-globala.

Boteretzea, estrategia baliagarria eta beharrezkoa dela adierazi ondoren, «ahalduntze-prozesu horiek bultzatzen eta sustatzen laguntzeko asmoa du Planak, baita emakumeen autonomian eragiteko ere» (Emakunde, 2006: 46). Bestetik, *a priori*, zentzu honetan, instituzioek dituzten mugak nabarmentzen dira, «esku-hartze publikoak berak dituen mugak aurkituko ditugu», «nortasunetan eta subjektibotasunetan, eta banakako kontzientzietan eragiteko» zailtasunak dituena eta gainera prozesuarena berarena, izan ere, «ezin baita ezein erakundek eragin, baina erakundeek prozesu horri lagun diezaiokete» (Emakunde, 2006: 45).

17. Planak, alor eta ardatz estrategikoez gain, bestelako egiturazko elementuak barneratzen ditu: programak, helburuak, estrategiak eta ekintzak.

18. IV. Planak boteretzea beharrean "ahalduntzea" erabiltzen du. Hala ere, orain arte egin den moduan, atal honetan ere "boteretzea" erabiltzen jarraituko da.

19. «Artikulu horretan ahalduntze hitza espresuki agertzen ez den arren, modu inplizituan prozesu hori aipatzen du» (Emakunde, 2006: 42).

Mugak muga, definitutako autonomiekin bat egiten duten lau lan-ildo eta esku-hartze ildo eratzen ditu Emakundek.

- *Emakumeen autonomia fisikoan eragin*. Boterearen ekintza ahalbidetu eta zabaldu emakumeen gorputz, sexualitate eta ugalkortasunaren kontrola ahalbidetu eta sustatzeko helburuarekin. Programek osasun-alorrarekin erlazioa dute. Alde batetik, emakumeek ugalkortasunaren kontrola handitzearekin erlazioa du, eta bestetik, medikuntzan emakumeengan eragin handiagoa duten gaixotasunen arreta eta antzematearen eskaerak barneratzen ditu.
- *Autonomia ekonomikoan eragin*. Programak, zuzenean, enplegu eta gizarte-erantzarekin lotzen dira (enplegura lan-baldintza berdinekin sartzeko).
- *Autonomia politikoan eragin*. Instituzioetan parte hartzeko eta erabakiak hartzen diren lekuetan parte hartzeko oinarrizko eskubide politikoak bermatzea, eta horiek modu eraginkorrean aurrera eramatea. Bi programen bitartez artikulatzen da, lehenengoa, hezkuntzako erabakiak hartzeko lekuei dagokie; bigarrena, espazio publikoaren planifikazio prozesuetan emakumeen parte-hartzeari.
- *Autonomia sozio-kulturalean eragin*. Nortasun independente, berezko balioaren errekonozimendu eta autoestimua sentimendurako eskubideez gain, informazio eta kultura-baliabideetarako sarbidea eta kontrola barneratzen ditu. Lan-programak bi norabidetan garatzen dira: espazio publikoan emakumeen ekarpen sozial, kultural eta historikoaren errekonozimendua, eta emakumeen presentzia eta parte hartzea alorrez alor (kirola, kultura, artea, komunikabideak.)

IV. Planean, horretaz gain, emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa bultzatzeko zehar-lerroak barneratzen dira. Kolektibo mailan, emakumeen botere-tzean eragina izan nahi dute demokrazia parte-hartzailea martxan jarritz, emakumeen partaidetza-foro ezberdinetan indartuz, edo berdintasunerako elkarteen sarea handituz eta indartuz.

4.2. Zein boteretze aipatzen da IV. Planean?

IV. Berdintasun Planaren azterketa, boteretzeari dagokionez, zenbait ondorio ateratzeko lagungarria da ekintza konkretuen orientazioaren inguruan. Horrela, planaren planteamendu orokorrak banakako boteretzea bultzatzen du. Dena den, ez da planteamendu sakona, eta banakako boteretzearen ezaugarri batzuk bakarrik bistaratzen ditu, behar praktikoekin eta garapen partzialeko maila estrategikoko esku-hartzeekin erlazonatutakoak.

Bestalde, boteretze kolektiboa lanerako zehar-lerroetan bakarrik da esplizitua, eta azkeneko esku-hartzearen alorretan (autonomia politikoan eta kulturalean) eta erabakiak hartzeko edo kontsulta-foroetan emakumeen presentzia indartzearekin erlazonaturik dauden neurrietatik aurrera zehaztasun gutxirekin agertzen da. Edozein kasutan, Kaaber-ek aipatutako boteretzearen ezinbesteko betekizunaren inguruan, Planean proposatutako neurrien helburu nagusia boteretzerako tresna eta *baliabideak* eskaintzean datza. Neurri txikiagoan *agentzia* berezien sorrera ere

planteatzen du, batez ere, emakumeen parte-hartzea ahalbidetzen dutenak. Hala ere, elementu horietatik batek ere ez du halaberharrez *emaitzarik* bermatzen.

Zentzu horretan, ikuspuntu indibidualekin proposatzen diren neurriak arrakas-tatsuak izan badaitezke ere, boteretze kolektiboaren ikuspuntutik, planteaturiko programak eta egiturak emakumeen presentzia eta eskaerak bermatuko ez dituzten tresnak bilaka daitezke. Hala eta guztiz ere, presentzia eta eskaera horiek ez dute bermatzen emakumeak eta emakumen interesak erabakiguneetan egoterik.

Hortaz, boteretzeak, ulermen zabal batetik, emakumeen interes eta beharrak erabakiak hartzen diren foroetan egotea esan nahi du. Berdintasun Planetik gomendatzen diren politiketarik ondoriozta dezakegu prozesuaren lehendabiziko parteari erantzuten diotela. Trebatzeko (nagusiki modu indibidualean) esku-hartzeak planteatzen eta gomendatzen dira, baina egun arte, horrelako trebakuntza modu eraginkorrean aurrera eramaten diren espazio gutxi izenda daitezke. Hortaz, zenbait testuk salatu duten moduan, boteretzea ezin da bakarrik erabakiak hartzen diren prozesuetan egotearekin nahastu eta *partaidetza kritiko eta aktiboa* gisa ulertu behar da²⁰.

Bibliografia

- Aldana Saraccini, A. V. (2002): "El Empoderamiento Femenino como Acción Ciudadana: Ética de una Participación Política Diferente", in *Ponencia presentada en la Conferencia Centroamericana del Caribe: Reproducción de la Pobreza, Gobernabilidad Democrática y Equidad de Género*, Managua.
- Batliwala, Sr. (1997): "El significado del empoderamiento de las mujeres: Nuevos conceptos desde la acción" in M. León (arg.). *Poder y Empoderamiento de las Mujeres*, TM Editores-EM Facultad de Ciencias Humanas, 187-213.
- Emakunde (2006): *IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV*. Directrices VIII Legislatura, <www.emakunde.es>.
- Kabeer, N. (2001): "Resources, Agency, Achievements: Reflections on the measurement of Women's Empowerment" in *Discussing Women's Empowerment*, Sida Studies, **3**, 17-55.
- Lagarde y de los Rios, M. (2000a): *Claves feministas para la autoestima de las Mujeres*, Horas y Horas. Cuadernos Inacabados, **39**, Madrid.
- , (2000b): *Cuaderno Vías para el Empoderamiento de las Mujeres*, Proyecto Equal I.O. Metal. Publicada por la Agrupación para la Igualdad en el Metal.
- León, M. (2001): "El empoderamiento de las mujeres: Encuentro del primer y tercer mundos en los estudios de género", *La ventana*, **13**.
- , (arg.) (1997): *Poder y Empoderamiento de las Mujeres*, TM Editores-EM Facultad de Ciencias Humanas.
- Oxaal, Z. eta Baden, S. (1997): "Gender and Empowerment: Definitions, approaches and implications for policy", *BRIDGE, Development-Gender. Report*, **40**.
- Rowlands, J. (2005): *El empoderamiento a examen en CVG Comunidad Virtual de Gobernabilidad* (<http://www.gobernabilidad.cl>).
- Sen, G. eta Grown, K. (1988): *Desarrollo, crisis y enfoques alternativos: perspectivas de la mujer en el Tercer Mundo*, Traducción, El Colegio de México-PIEM, México.

20. Basauriko Jabetze Eskolaren programaren barnean dagoen boteretzearen definizioaren inguruko testua da.

- Stromquist, N. (1997): “ La búsqueda del empoderamiento: en qué puede contribuir el campo de la educación”, in M. León (arg.), *Poder y Empoderamiento de las Mujeres*, TM Editores-EM Facultad de Ciencias Humanas, 75-98.
- Young, K. (1997): “El potencial transformador en las necesidades prácticas: empoderamiento colectivo y el proceso de planificación” in M. León (arg.), *Poder y Empoderamiento de las Mujeres*, TM Editores-EM Facultad de Ciencias Humanas, 99-118.

